

BALORAZIO IRIZPIDEAK	Puntuazioak / gehieneko murrizketak
Alderdi orokorrak	2 puntu
• Unitate didaktikoa justifikatzea eta hari testuingurua ematea programazioaren edo espezialitatearen gai-zerrendaren barruan.	0,5 puntu
• Unitate didaktikoa ongi egituratuta dago eta haren elementuak koherenteak dira beren artean.	0,5 puntu
• Izangaiak azalpen argia, ordenatua, arina eta koherentea egin du.	Puntu bat
DBHrako eta Batxilergorako helburuak, edukiak eta metodologia	3 puntu
• Ikasketa helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta ikaskuntzaren estandarrak ongi planteaturik daude eta koherenteak dira beren artean.	Puntu bat
• Edukiek gaitasunen garapenarekin duten lotura zehazten da.	Puntu bat
• Proposamen metodologikoa bat dator ikasleen ezaugarriekin.	Puntu bat
Jarduerak	2 puntu
• Jarduerak motibagarriak dira eta hainbat zailtasun maila dituzte, ikasleen eta ikasmailaren ezaugarriekin bat etortzeko.	0,7 puntu
• Bigarren Hezkuntzako unitate didaktikoaren kasuan, jarduerak bat datoz ikasketa helburuekin.	0,7 puntu
• Material eta baliabide didaktikoak erakargarriak, egokiak eta askotarikoak dira.	0,6 puntu
Ebaluazioa	3 puntu
• Ebaluazio irizpideak eta ikaskuntzaren estandarrak koherenteak dira ikasketa helburuekin.	Puntu bat
• Prozedura, ebaluaziorako tresnak eta kalifikazio irizpideak.	Puntu bat
• Helburuak erdiesten ez dituzten ikasleendako esku-hartze neurriak.	Puntu bat